

Lehenik eta behin, mila esker Donostiako kaleak bete dituzuen milaka gizon eta emakumeoi. Beste behin ere, inposatu nahi diguten blokeo egoera honen aurrean ez gaudela subjektu pasiboa izateko prest erakutsi dugu. Gehiengo sindikalak egindako deialdi bateratuak jasotako atxikimendu eta babesak argi erakusten du mota honetako iniziatibak direla jendartea eskatzen ari dena. Jendartea bera eta konkretuki gure eskubideak aldarrikatzeko kalera ateratzen garen langileok, protagonista egiten dituen iniziatibak nahi dituela.

Bestalde, euskal gehiengo sindikala osatzen dugun ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuok gure elkartasuna helarazi nahi diegu atxilotuei eta hauen senideei.

Horixe da euskal langile guztiei adierazi nahi diegun lehen sentipena eta gaur mobilizazio honetan parte hartzea erabaki duzuen guztiok konpartitu eta indartu duzuen. Sentipen hori areagotu egiten du, inkomunikazio erregimenak eta legeria antiterroristak eragiten duten indefentsio egoerak. Izan ere, euskal jendartearen gehiengoak, nazioarteko estamentu eta eremu ugaritako pertsona ezagunek zein Nazio Batuetako giza-eskubideetako errelatoreak berak ere sarri askotan salatu izan ditu.

Euskal gehiengo sindikala osatzen dugun sindikatuok euren jardun politikoagatik atxilotuak izan diren pertsonak berehala aska ditzatela exijitzen dugu. Sistema demokratiko batean inoiz ez luke, inor, atxilotzeko arrazoi izan beharko oinarritzko askatasun baten gauzatzea; kasu honetan, jardun politikoa. Halaber, Alderdien Legea berehala deroga dezatela ere galdegiten dugu. Lege hori berez injustua da, baina gainera –eta hau da larriena– aukera politiko eta sozial bat desagerrarazteko ari dira baliatzen. PPK eta PSOEk 2001eko abenduan sinatu zuten itun antiterroristaren babespean, Estatua benetako genozidio politiko bat egiten ari da eta horrek amaitu egin behar du.

Gure ustez, Baltasar Garzon epaileak, urriaren 13an, ezker abertzaleko buru politikoak atxilotzeko zuzendutako operazioa ekintza larria da. Atxiloketa hauen atzean, ideia jakin batzuk dituzten herritarrei parte hartze politikorako eskubidea ukatzeko jarrera politikoa ezkututzen du Espainiar Estatuak.

Oraingoan ere, Estatuak helburu politikoak lortzeko erabiltzen duela justizia salatu behar dugu. Horren adibide, Euskal Herrian disidentzia politikoaren aurka egiteko Auzitegi Nagusia bezalako epaitegi bereziek, egunero erabiltzen dituzten lege eta salbuespen neurriak ditugu. **Bereziki gogoratu nahi ditugu ehundaka pertsona kriminalizatuz, erakunde politiko, sozial eta komunikabideen aurka zabaldutako prozesuak. Gutxieneko berme juridikorik ez duten prozesuak hain zuzen ere.**

Halaber, “estatu-arrazoia” indartzeko politika errepresiboa espektakulu bihurtu izana salatzen dugu. Lotsagarria da, inputatuek edo herritarrek operazioaren zergatiak xehetasunez ezagutu baino lehen; honelako operazioetan komunikabideek present egoteko duten pribilegioa.

Kezkatuta gaude estrategia errepresibo honetan estatuko botere desberdinek hartu duten egitekoa ikusita: elkar hartuta jokatzeko dute, ez dute euren esparrua errespetatzen eta indefentsio egoerak eragiten dituzte. Gainera, Espainiar botereek egoera hau legitimatzeko orduan, zenbait komunikabideren laguntza paregabea daukate. Komunikabide horiek, jendarteari gatazkak ulertzeko informazio argia eta garbia eman eta boterea kontrolatu beharrean; guztiz kontrako jarrera hartzen dute eta kontrolatzeko desinformatzea izaten da euren lana.

Gaur, hemendik, publikoki esan nahi dugu espainiar estatuaren jardunbide antidemokratiko, autoritario eta errepresiboak kezkatzen gaituela. Aste honetako atxilotetak testuinguru horretan kokatzen ditugu. Honelako gertakariak, beren burua demokratikotzat duten gure inguruko herrialde horietan, kezka hartu beharko lituzkete. Baina zoritxarrez bost axola die.

Espainiako estatuak ez du onartzen errealitate nazional desberdinak daudenik; are gutxiago Euskal Herria bera. Estatuak, joan den astearteko ekintzen bitartez, berretsi egiten du euskal jendarteari eskaintzen dion irtenbide bakarra gatazka luzatzea dela; eta ez dagoela irtenbide demokratikorako aukerarik.

Manifestazio hau deitu dugunok, ez gaude egoera hau onartu eta etsitzeko prest. Horrexegatik, gatazka honi irtenbide demokratikoa bilatzeko gure konpromisoa berresten dugu eta euskal langile klaseari hori lortzeko konpromisoari eutsi diezaiola eskatzen diogu.

Euskal gehiengo sindikala osatzen dugun sindikatuok, ezberdintzen gaituena alde batera utzita, egoera hauen aurrean analisiak konpartitu eta manifestazio hau elkarrekin deitzeko gai izatea erabat positiboa dela pentsatzen dugu. Eta egindako lan horren fruitua gaur, zuek, Donostiako kaleetan eman duzuen erantzun paregabea izan da

MILA ESKER GUZTIOI!

Askatasunaren alde – Eskubide guztiak guztiontzat